



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-07-14

VIIURTEA 1.753.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herenegun, gizonekoetan lehena Samal Sanhaju izan zen eta emakumezkoetan, berriz, Nerea Amilibia. IDOIA LAHIDALGA

SANHAJU ETA AMILIBIA AZKARRENAK

ASTEASU Santamañako IX. Kros Igoeran 103 korrikalarik hartu zuten parte; herriko azkarrenak Pello Izagirre eta Isabel Dumall izan ziren 3

Garikoitz Altunak San Fermin Torneoa irabazi du, Julen San Miguel bikotearekin

AMEZKETA Iruñeko Euskal Jai Berrin jokatu zuten Urriza-Urrutiaren aurka 7

'Herria Abian' ekimenak etzi egingo du bilera Tolosaldean «aldaketa sozialaren alde»

TOLOSALDEA LABek Tolosan duen egoitzan izango da batzarra, 19:00etan 7

Tolosa CFko neskak «pozik» Tolosa Cup-en eginikoarekin

TOLOSA Belgica Girls A taldearen aurka jokatu zuten finala; 4-0 galdu arren «gustura» daude 4

IRENE USABIAGA TOLOSA CF-KO TXIRRINDULARIA

«Pistakoan ere zerbait lor dezaket, indartsu nagoela ikusten dut»

TOLOSA Espainiako Txapelketan bi urrezko domina lortu ditu Euskadiko selekzioarekin z



Irene Usabiaga podiumean, Espainiako Txapelketan. HITZA



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Sanhaju eta Amilibia irabazle krosean

Asteasu » Lehenengo asteasuarrak Pello Izagirre eta Isabel Dumall izan ziren; guztira 103 parte-hartzaile izan ziren.

ERREDAKZIOA

103 parte-hartzaile izan ziren herenegun Santamañako IX. Kros Igoeran, iaz baino korrilari gehiago. Azkarrena gizonzkoetan Kamal Sanhaju izan zen eta emakumezkoetan Nerea Amilibia zizurkildarra.

Sanhajuk 27:37ko denbora egin zuen, bigarrena Patxi Urizar izan zen (28:09), hirugarrena Zuhaitz Ezpeleta (28:10), laugarrena Mikel Alveniz (28:16) eta bosgarrena Juan Mari Garin (28:20). Lehenengo asteasuarra Pello Izagirre izan zen.

Emakumezkoetan Amilibiak (33:38) egin zuen, bigarrena Claudia Beobide izan zen (35:38), hirugarrena Idoia Ezeiza (36:20), laugarrena eta lehen asteasuarra Isabel Dumall (36:49) eta bosgarrena Eva Esnaola (37:18).



Podioa osatu zutenak, ezkerretik hasita: Z. Ezpeleta, M. Alveniz, C. Beobideren ordez saria jaso zuen I. Moreno, E. Esnaola, I. Dumall, I. Ezeiza, N. Amilibia, K. Sanhaju, P. Urizar eta J.M. Garin. IDOIA LAHIDALGA



Hainbat korrikalarik parte hartu zuten herenegun izan zen Santamañako IX. Kros Igoeran. IDOIA LAHIDALGA

«Denboraldi ona da aurtengoa ere»

NEREA AMILIBIA » Korrikalaria

I. GARCIA

Klasikoa bihurtzen ari da Nerea Amilibia zizurkildarra urteroko Santamañako Kros Igoeran. Bosgarren aldiz irabazi du aurtun proba.

Zer moduz joan zen lasterketa?

Primeran. Beroarekin hobeto ibiltzen naiz, hotzarekin ibiltzen naiz ni gaizki. Jendeak esaten zuen beroa egiten zuela, baina ni ez naiz kezaxten beroa egiten badu. Lasterketa motza da, baina horibai, bizia, azkarra.

Egindako denborarekin gustura zaude?

Errekorretik 20 segundora gelditu nintzen. Ezin jaitsita. Eman eta eman, baina ezin. Ez dakit zer egin beharko dudana errekorra jaisteko. Erlojuari begiratzen nion eta esaten nuen «gaur igual bai», baina denbora azkar joaten da.

Aurkarietan zein zenuen arrisku-tsuen?

Claudia Beobide joan zen, baina hori asfaltoan gehiago ibiltzen da, mendian ez hainbeste.

Nola iritsi zineten Santamañako aldaparen hasierara?

Herriko aurreneko itzulia Beobiderekin batera egin nuen, baina bigarren goan gelditzen ikusi nuen. **Forma onean bazaude ez da erraza izan behar zuri irabaztea. Ondo dakizu ibilbidea.** Baina ez zara beti egoten forma berdinean.

Aurrera begiraz beste proba dituzu?

Hurrengo igandean Galarleiz Mendi Maratoia egingo dut, Biz-

kaian, Zalla inguruan. Nahiko gorrira izango da aurtun. Eta horren ondorengo igandean mendilasterketako Euskadiko Kopako proba dago Zumaian. Baina aurrena igande honetako 42 kilometroak egin behar ditugu.

Nolakoa izaten ari da aurtengo denboraldia mendi lasterketan?

Aurtun darमतatz 16 lasterketa eta hoerietatik 14 irabazi ditut, tartean Euskadiko Txapelketa. Denboraldi ona izaten ari da aurtun ere.



IDOIA LAHIDALGA

«Irabazlea harrapaezina zen»

PATXI URIZAR » Korrikalaria

I. GARCIA

Lau urtez jarraian irabazi ondoren, aurtengoan bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen Patxi Urizar billabonatarrek.

Aurrenekoa egin zuen korrikalaria, Kamal Sanhaju, ezagutzen zenuen?

Ez nuen ezagutzen, egia esan. Herriko itzulietan hasi zen tiraka eta oso indartsu zegoen. Esaten nion nire buruari, «ez dakit azkeneko alda ezagutuko duen, baina behintzat indartsu eta erraz ikusten zaio herriko itzulietan».

Aldapan harrapatuko zenuela pentsatzen zenuen?

Pentsatu nuen ea nola moldatuko zen aldapan, baina hasieran ikusten nuen korrikari jarraitzen zuela eta hori seinale ona izaten da. Bartzuetan jende asko beheran azkarregi joaten da eta aurreneko maldan erdi oinez-edo hasten da.

Hirugarrena segundo batera sartu zen.

Bere atzetik joan nintzen azken alda eta 500 metro-edo falta zirela, basoa bukatu baino lehen, pasatu nion. Gero atzera begira aritu

nintzen, distantzia kontrolatzeko. Ez nengo gainera indar askorekin ere.

Pena emango zizun ez irabazte aurtengoa.

Pena gero eman zidan, bukaeran. Baina lasterketan, ikusita nola zihoan, harrapaezina zen.

Hainbatetan parte hartuta, gustuko duzu Santamañako proba?

Antolakuntza urtero bezala oso ondo egon zen eta oso gustura joaten naiz proban parte hartzeri.

Duatloiarri dagokionez, nola doa denboraldia?

Euskal Herriko denboraldia bukatu zen. Zirkuituan hirugarren egin nuen eta Euskadiko Txapelketa irabazi nuen. Igandean Frantziako Distantzia Luzeko Txapelketa egitera noa. Hori prestatzeko ere baliatu nuen Santamañako proba. Ibilbidea ere nahiko antzekoa da, hasieran mendi txiki bat igo behar delako.

Posturen baten bila zoaz?

Lehenengo urtean laugarren egin nuen eta saiatuko naiz postu hori hobetzen, baina zaila ikusten dut, maila handia izaten delako.



IDOIA LAHIDALGA

Tolosa CFko neskak «oso gustura» Tolosa Cup-en bigarren eginda

Tolosa » Pasa den ostiral arratsaldean Belgica Girls A taldearen aurka galduta zuten finalean (4-0), «partida zail batean».

NOELIA LATABURU

Zilarrezko domina eskuetan «oso gustura» bueltatu dira etxera Donosti Cup txapelketatik Tolosa CFko neskak. Pasa den ostiralean Belgica Girls A taldearen aurka jokatuta zuten finala, 15-16 urte bitarteko mailan, Donostiako Anoeta zelaietan. Azken markagailua 4-0koa izan zen kanpotarren alde.

Ixiar Atxukarro Tolosa CFko nesken entrenatzaileak bere jokalariek eginiko lana goraiatu du: «Aurten lehenaldiz osatu dugukadeteen taldea, eta denboraldian zehar futbol zortziko ligan aritu gara; ez zekiten zer zen hamaika jokalariek aritzea». Hain zuzen, bi aste baino ez zituzten izan urdi-

nek entrenamenduak hamaika jokalariek egiteko. Tolosa, Berastegi, Villabona, Zizurkil, Alegia, Ikaztegieta eta Abaltzisketako neskek osatu dute taldea. «Sekularako meritua da esperientziarik gabeko talde bat izanik finalera heletzea; oso-oso pozik nago».

Aste gogorra

Igandean eginiko sari banaketan jaso zituzten euren dominak Tolosa CFkoek, baina aurretik aste gogorra izan zuten. Astelehen arratsaldean ekin zioten txapelketari Beasaingo Jawar taldearen aurkako partidari. 1-0ko emaitzarekin irabazi zieten gipuzkoarrei, Herrean.

Astearte goizean Norvegiako Roa II taldea izan zuten aurrez aurre eta hauen aurka ere 1-0koarekin lortu zuten garaipena. Asteazkenean erraz gailendu ziren Donostia taldearen aurka (8-0). Ostegun arratsaldean Estatu Batuetako Elko Soccer taldearen aur-



Jendetza bildu zen finalak ikustera Anoetan. ESTITXU ZABALA / BRUTXULOKO HITZA

ka aritu ziren eta hauen aurka ere 1-0 irabazi zuten. Ostiral goizean Ostadarren aurka 4-0 irabazi zuten.

Finalaren aurretik jokaturiko bost partidetan, beraz, garaipenak lortu zituzten tolosarrek. «Oso astegogorra izan zen, egunero partida bat jokatzen genuen, eta ostiralean bi», gogoratu du Atxukarro.

Finalaren nondik norakoak

Belgica Girls A taldearen aurkako partida «oso zaila» izan zen. Izan ere, Belgicako selekzioa zen, hau da, herrialdeko neska onenetarikoek osatzen zuten taldea.

«Hasieratik bagenekien ez genuela irabaziko, beraz, gure helburua ahalik eta gol gutxien jasotzea izan zen», aitortzen du entrenatzaileak. Hori dela eta, «oso pozik» geratu ziren emaitzarekin.

Lehen gola oso azkar egin zuten aurkariek. «Bigarrena jaso aurretik aukerak ere izan genituen baina maila oso altua zuten eta ezin izan genuen ezer egin». Finaleko zelaia ere ez zen nolana hiko: «Anoetan neskak urduri-edo zeuden, eta gainera oso nekatuta zeuden egunero partida bat egin eta gero».

«Helburua beteta»

Ixiar Atxukarrok «helburua bete» dutela ziurtatzen du. «Donosti Cup-en parte hartzeko erabakia hartu genuenean neskek hamaika jokalariek jokatzea zer zen probatzea nahi nuen, baita ahalik eta txukunen jolastea eta beste herrialdeetako jokatzeak modua ezagutzeko ere». Helburu zitiak

bete dituzte, hortaz. Bestalde, «Sebas delegatuak eginiko lana» eskertu nahi izan du entrenatzaileak.

Giro ona Donosti Cup-en

Astebete iraun du Donosti Cup txapelketak. Guztira 5.676 jokalarik batu dituen futbol jai handiari bukaera heldu zitzaion herenegun. 258 taldek hartu dute parte hainbat mailatan banatuta.

Baina Donosti Cup futbol txapelketa bat baino askoz gehiago da. Elkarkidetzak bat da, herrialdean arteko harremanak sustatzeko gune aproposa. Tolosakoekin kasuan «harremanak ez ditugu gehiegi landu», egutegi estua zuten eta. «Gauean festa antolatzen zituzten baina gero goizean partidak jokatuta beharra zegoen». Hala ere, beste taldeen artean harreman onak egin direla dio Atxukarrok. «Jokoa ere garbia izan da oro har».

Tolosa CFren etorkizuna

Denboraldi amaiera gogorra egin zaie Tolosa CFko jokalariei zein entrenatzaileari. «Gehiegi luzatu da; liga amaitu eta Donosti Cup presatzen hasi ginen eta gogorregia egin da». Gainera neskak gazteak direla gogoratu behar da eta «erritimo biziak izan da beraiatzat». Horrexegatik datorren urtean errepikatzearen inguruan Atxukarrok ez du oso argi zer egingo duten. «Oso esperientzia polita izan da baina oso nekatuta amaitu dute neskek». Portugalen ere Lisboa Cup txapelketa antolatuko dute datorren urtean. «Ondo pentsatu beharko dugu zer egin».

Ikasturte gogor honen ondoren uztaile erdia eta abuztua dute orain atseden hartzeko; irailean ekingo diote denboraldi berriari. «Izena emateko deialdiari neska askok erantzun diote eta 28 jokalarik gazte ditugu orain izena emanda». Atxukarro ez da «aukeraketa bat egitearen aldekoa», eta aukera guztiak aitzertzen ari dira, guztiekin aukera bat eman ahal izateko.



*Nahi duzun tokira
eramango zaitugu
uda honetan*



GARMIN nüvi 200 GPSa

Harpidedun egin zaituzte eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, lantokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Cure promozioetan (disco bildumak, liburuak, mendiko gidak...) abantaila bereziaz gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Mantangorri larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretzua haur eta gaztekoentzat
- NORA bidaia aldizkaria hilabetero BERRIArekin
- ...

Animatu! Merezi du

HARREMANETARAKO:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

*Urte osoko harpidedarako

lau gizonetzko atxilotu dituzte enpresa batean txatarra lapurtzeagatik

Zizurkil » Herenegun gauean, 21:15ak aldera, atxilotu zituen Ertzaintzak 19 eta 51 urte bitarteko lau gizonetzkoak.

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean lau gizonetzko atxilotu zituen Ertzaintzak Zizurkilgo enpresa batean. 19 eta 51 urte bitarteko lau gizonetzko hauek ustetxatarra lapurtzen ari ziren enpresa honetan. Eusko Jaurilaritzako Barne sailak informatu zuenez,

21:15ak aldera bizilagunen batek deitu zuen esanez enpresa honetan furgoneta bat sartzen ikusi zuela.

Deiaren ondoren Ertzaintza enpresaraino gerturatu zen eta lau gizonetzkoak enpresa barruan harriapatu zituen, bizilagunak esan bezala, furgoneta bat txatarraz betetzen.

Informatu zutenaren arabera, lau atxilotuek lapurtzeagatik atxilotuak izan dira. Ondorioz, atxilotu egin zituzten eta hurrengo orduetan epailearen aurretik igaroko da.

Herriko etorkinek botako dute biharko Karmen jaietako txupinazoa

Alegia » Udalak modu honetan eskua luzatu nahi izan die «gure kulturari eta festetan murgil daitezzen animatzeko».

NEREA URBIZU

Karmenak iristearrekin, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri bakar batean ospatzen dituzten jaiak heldu dira: Alegiakoak, hain juxtu. Bihar 18:30ean hasi eta datorren igandera arte izango da zer jan, zer edan, zer dantzatu eta zer kontatu. Herriko plazan eta Larraizko plazan izango dira ekitaldi gehienak.

Aurten txupinazoa beste kultura batzuetatik datozen herritarrek botako dute. Modu horretan «bai festa batzordetik eta bai Udaletik keinu bat egin nahi izan diogugero eta anitzagoa den kolektibo honi. Gure herrian ere gero eta gehiago dira, azken urteetan asko nabaritu da kultura ezberdinen presentzia, eta iruditzen zaigu orain dela mementoa jende honi eskua luzatu eta gure kulturari, gure festetan murgil daitezzen animatzeko».

Bada, herritar horien ordezkar



Lehenago eta oraingo txistulariek kaleetan zehar joko dute kalejiran: aurten ere, hauek ezin falta. PATXI RENOBALDES

gisa jatorri desberdinetako bost lagun izango dira bihar udaletxeko balkoian: Beatriz Stipetich eta Danitza Rosillo (Peru), Mohammad Saeed (Pakistan), Jaguas Samadi eta Nouredine Dhimidi (Maroko).

Bestalde, herria festetan dagoen bitartean, autobusak geldialdi ba-

karra egingo du, Larraitz auzoan, festa egun guztietan. Tontokale ere itxita egongo da autoentzat.

Intxurrekoen taberna

Festek iraun bitartean, Intxurre KKE futbol taldeak Guria edaritegia alokatuko du eta tragoak atera-

ko dituzte bertan. Aurten ez dute Garagardo Festarik antolatu eta horren ordez, nolabait esatearren, taberna hartu dute. Bertan lortutako dirua Intxurre futbol taldea laguntzeko erabiliko dute.

Bestalde, oraindik ere zozketa-goto txartelak salgai dituzte. Hilaren

24ko Once zozketako zenbaki berberak dituen txartelak sarria irabaziko du. Intxurreko futbol taldeko jokalariek hurremanetan jarrita lor daitezke txartel hauek euro bat eta 50 zentimoren truke.

Egitarau alternatiboari lotutakoak

Gaztetxeok ezuziria 19:00etan botako dute eta igandera arte ere prestatu dute egitaraua. Tartean, noski, ez dira faltako kontzertuak eta bertsoak. Ostiralean ezik, beste egun guztietan iluntze partean hasiko dira ekitaldiak. Ostiralean bazkaria antolatu dute Tontokalen, 14:00etan. Ondoren jolasak egingo dituzte.

Oraindik ere bazkaria joateko aukera badago, txartelak eros daitezkeelako baina gaur da hauek lortzeko azken eguna. Gaztetxeokien hurremanetan jarrita eskura daitezke.

Bulebarren eta Gaztetxean egingo dituzte gauza guztiak, urtero bezala. Kontzertuen artean hauek gonbidatu dituzte: Vicepresidentes, Willis Drummond, Skastin, Gaztetxean Erantzun, Burux Lee eta Arrautz ustelak. Dena den, erromeriak ere izango dira gorpuzak astintzeko, esaterako Bonberenea txarangakoak.

Urtero bezala, ez da zahagi ardo faltako: horren herrikoa denari ederki heltzen badakite Gaztetxeok ere.

» EGITARAUAK EGUNEZ EGUN

EGITARAU OFIZIALA

Uztailak 15, bihar

- 18:30. Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketara udaletxeko arkupean.
- 18:30. Ordiziako erraldoi eta buruhandiak eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira Larraitz auzotik plazaraino.
- 19:00. *Euskal Presoak Euskal Herria* lelopean elkarretaratzea herriko plazan.
- 19:00. Txupinazoa Txintxarriaren igoerarekin, jaien hasiera iragartzeko. *Ereserkia* dantzatuko dute Dantzari Txiki taldekoak.
- 20:00. Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua elizan.
- 21:00. Zahagi ardo herriko plazan.
- 23:30. Elvisavuelo taldearen kontzertua plazan.

Uztailak 16, etzi

- 09:00. Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
- 09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.
- 11:00. Iraunkorrek txaranga kalez kale ibiliko da.
- 12:30. Alegiako dantzarien emanaldia herriko plazan.
- 17:30. Umeentzat meatzarien jokuak Kulki taldearen eskutik, eskolako atarian.
- 19:00. Patata-tortilla Txapelketa.

- 19:00. Asier Unsain eta Irma Karrerarekin trikitixa plazan.
- 22:30. Bertsolariak Kultur Etxean: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi eta Amaia Agirre. Gai-jartzailea: Felix Irazustabarrena.
- 00:00. Ostadar taldearekin dantzaldia.

Uztailak 17, ostirala

- 08:30. Jubilatuek antolatutako mendi martxa.
- 09:00. Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
- 10:00-14:00. Haur parkea eskolako atarian.
- 13:00. Apar Festa.
- 11:00. Jubilauentzat hamaiketako.
- Ondoren. Bertsolariak plazan: Aitor Mendiluze eta Unai Agirre ariko dira.
- 14:00. Umeen herri bazkaria herriko plazan.
- 16:00. Santos Torneoko areto futboleko finala.
- 17:00. Haur jaialdia eskolako atarian. Merienda eta jokuak izango dira.
- 19:00. Sagardo kupela plazan.
- 21:00. Herri afaria plazan.
- 00:00. Ama say eta Delorean taldeen kontzertua.

Uztailak 18, larunbata

- 09:00. Arrantza lehiaketa Oriabaian 6 eta 14 urte bitartekoentzat.

- 09:00. Herriko txistulari eta trikitilarien diana.
- 09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- 12:00. Sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin.
- 12:00. Asier Unsain eta Irma Karrerarekin trikitixa plazan.
- 18:30. Herri kirolak Larraitz auzoko plazan. Harri-jasotzaileen IV. Txintxarri Saria: alde batetik, Izeta II.a, Izeta III.a eta Izeta IV.a; bestetik Aimar Irigoien, Unai Bertiz eta Juan Jose Goenatxo. Harriak: 125 kiloko kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zaharra eta 100 kiloko bola.
- Ondoren. Gipuzkoako Lasto-aldatze Txapelketa. Bi minutuko tanda bat partaide bakoitzak 45 kiloko lasto fardoarekin. Sei partaide ariko dira.
- 21:00. Zahagi ardo batera. Ardo Gaztetxeak, postrea Udalak eta ogia norberak.
- 00:30-05:00. DJ Makala.

Uztailak 19, igandea

- 09:00. Gigoarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- 09:30. Kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txistulariek.
- 12:00. O + Hatz Project taldearen kontzertua plazan.
- 18:00. Umeen jolasak plazan.
- 19:45. Mariachi viva Mexico taldearen emanaldia plazan.
- 23:00-03:00. Dantzaldia Drindots taldearekin.

- 00:00. Txintxarriaren erreketak, festen bukaera iragartzeko.

EGITARAU ALTERNATIBOA

Uztailak 15, bihar

- 17:30. Xantosen omenezko areto futboleko txapelketako finala.
- 19:00. Txupinazoa suziri lugu-riarrek.
- 20:30. Zahagi ardo.
- Ondoren. Erromeria Laket taldearekin.

Uztailak 16, etzi

- 20:30. Zahagi ardo.
- 23:00. Vicepresidentes eta Willis Drummond taldeen kontzertuak.

Uztailak 17, ostirala

- 14:00. Herri bazkarie.

- Ondoren. Jolasak.
- 20:30. Zahagi ardo.
- 01:30. Dj Aizpun Bulebarrean ariko da musika jartzten.

Uztailak 18, larunbata

- 20:30. Zahagi ardo bateratua zubin.
- Ondoren. Bonberenea txarangarekin kalejira egingo dute.
- Segidjan. Bulebarrean Skastiren kontzertua.
- 00:00. Erantzun, Burux Lee eta Arrautz ustelak taldeak zuzenean Gaztetxean.
- Bukatzeko. *Txapa hotsa ta burundie*. Ohikoa bihurtu den ekitaldia.

Uztailak 19, igandea

- 20:30. Zahagi ardo.
- Ondoren. Herriko bertsolarien emanaldia izango da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irailaren 30era arte jasoko dituzte kiroldegirako proposamenak

Ibarra » Udalak eraikinaren baldintzak hobetu ahal izateko ideien lehiaketarako oinarriak onartu ditu.

ERREDAKZIOA

Ibarrako kiroldegia berritu edo handitzeko proposamenak irailaren 30era arte jasoko ditu Udalak onartutako baldintza pleguan ezarritakoaren arabera. Pleguaren xedea «kirol-instalazio honen baldintzak hobetzeko ideia lehiaketa arautzea da», argitu du Udalak oharbaten bidez.

Era berean, jasotzen dituzten proposamenak aukeratzeko epaimahaia lanak entregatzeko epea amaitu eta 15 egun ondoren eratu-kodutela ere esan dute. Horiek ho-

rrela, urriaren amaierarako Belabietako kiroldegia egungo zerbitzuak nabarmen hobetuko dituen proiektua zein izango den esango dute. Hala ere, «data honek atzerapen bat jaso dezake aurkeztutako lanen kopurua handia bada, aipatutako epean ideia guztiak aztertzeko zailtasunak egongo lirartekeelako», zehaztu dute.

Parte hartzeko baldintzak

Proposamenak bidaltzerako garaian hainbat baldintza bete behar dira Udalaren hitzetan: «Baldintza horietako batek proiektuak diziplina anitzeko talde batek egina izan behar duela dio, beti ere, arkitecto baten gidaritzapean. Arduradun nagusia ezaugarri hau betetzen duen profesional bat izatea eskatzen dugu, Udalak, proiektua, irabazle suertatzen den talde ber-



Irailaren 30a arte jasoko dituzte kiroldegia berritzeko proposamenak. R. CALVO

dinari enkargatzeko aukera ere onartu ahal dezakelako».

Lanak Ibarrako Udaleko Sarre-rako Erregistroan aurkeztu behar dira (San Bartolome Plazako 2. zenbakian). Informazio zabalagoa eta behar den dokumentazioa ere bertan jaso daitezke.

Balorazioko unean «epaimahaiak arreta berezia jarriko die kirol-eremuaren handitzearen

ezaugarri funtzionalei eta bertako landareztan eta landaketa berriei dagokionez egingo den esku-hartzean».

Era berean, beste zenbait alderdi ere hartuko dituzte kontuan, «esate baterako, irisgarritasuna, mantenturako erraztasuna, jasangarritasuna eta energia-aurrezteko azterketa baten erredakzioa. Egikaritzaren ekonomia, proiektu-

tua faseka garatzeko aukera edota ingurunean nola barneratzen den bezalako irizpideak ere kontutan hartuko dira azken erabakian».

Udalak lehen aldiz egin du era honetako lehiaketa eta helburua «azken erabakia aberatsagoa izaten lagunduko duten proposamen berrien sorkuntza» sustatzea dela esan dute. «Azken batean, herritarrentzat mesedegarriagoa izango den erabaki bat hartu ahal izango baita horrela», gaineratu du Ibarrrako Udalak.

Hiru aukeratu dituzte, lehenik

Planteatu duten formula ondokoa da: aurkeztu diren proposamenen multzoa aztertu eta puntuazio gehien duten hirurak aukeratu dituzte, lehenik. Ondoren, hauetariko bakoitzari 1.500 euroko aitorpena emango diete.

Txelo Romeo Ibarrako alkatearen hitzetan, «ideia lehiaketa formula honen aukeraketa alderdi ezberdinetan oinarritzen da. Alde batetik, berrikuntza hauek beste udal-ekintza batzuk baina lehen egiteko beharragatik». Beste arrazoi bat da «berrikuntza proiektuaren barruan ideia desberdin asko gauzatu daitezkeela eta ez dituela beste proiektu batzuek dituzten mugak».

Alurr Frantzian izango da gaurtik aurrera

Ibarra » Dantza taldeak Issoireko Munduko Musikari eta Dantzen Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko du parte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Alurr dantza taldeak Issoiren (Frantzia) gaurtik ostirala bitarte ospatuko den Munduko Musikari eta Dantzen Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko du parte.

Guztira dantza taldeko 28 lagun joan dira Issoireko jaialdira: 17 dantzari, 6 musikari eta baita gidariak, arduradunak eta laguntzaileak ere. Dantzariak 12 urtetik 16

urte bitartekoak dira, jaialdia gazteei zuzendutakoa baita. Folklore jaialdia denez, Alurrek dantza tradizionalak aurkeztuko ditu, eta baita hainbat koreografia ere, antolatzaileek eskatuta.

Jaialdian Kenya, Haiti, Paraguai, Salomon Uharteak, Eslovakia eta beste zenbait herriko taldeak ikusia ahal izango dira.

«Ilusioz beteriko»

Alurantz «interesgarria» da jaialdian parte hartzea, «taldeko dantzari eta musikarientzat aukera polita eta ona baita. Taldeko denak ilusioz beterik gaude, gazte- txoak bereziki, gisa horretako berren lehenengo esperientzia izango delako», esan dute.

Gaur hasiko du Xabi Fernandezek Munduko 49er txapelketa

Ibarra » Ibartarra eta Iker Martinez aste bete doazte Italiako di Garda lakuan, non gaur hasiko duten txapelketa berri bat.

ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinezek txapelketa ugari dituzte aurretik Londreseko 2012ko Olinpiar Jokoak baino lehen.

Horietako lehena gaur bertan hasiko dute Italian, izan ere gaur hasiko da Di Garda lakuan 49er mailako munduko txapelketa. Bi-

koteak 49er mailan lortu zituzten, hain zuen, azken olinpiar jokoetako bi dominak.

Fernandez eta Martinez Volvo Ocean Race txapelketako hirugarren saria eskuratu zuten orain gutxi eta Telefonica Azul ontzian bederatzik hilabetez munduari bira ematen egon eta gero 49er mailara bueltatzea ere zaila egingo zaiela esan dute. «Santanderren ontzia hartu genuenean, 9 hilabeteetan Volvon egon eta gero, oso zaila iruditu zitzaigun, ontzia ezegonkor samarra iruditu zitzaigun, baina sentsazio onak berreskuratzen ari gara eta hamar egunetan lan ona egin dugu», esan du Martinezek.

Laburrak

Salontzotako herri afarian izena emateko epea

BERASTEGI » Berastegiko Salontzotako abuztuaren 7an herri afaria egingo dute eta tiketak hilaren 27ra arte eskura daitezke Urepele eta Basurde elkarrean edo Zelai tabernan. 12 urtetik beherakoek 8 euro ordaindu behar dute eta besteek, aldiz, 16 euro.

Baztandarren Biltzarrera joateko autobusa

IBARRA » Ibarrako Bai Euskal Herriarik igande honetan, hilak 19, izango den Baztandarren Biltzarraren egun pasa egiteko autobusa antolatuta du. Autobusa 09:00etan aterako da Benito Izagirre kultur etxetik eta izena herriko Atari eta Zubiurre tabernetan eman daiteke.

Hilberria

JOXESAROBELASARTE

Jauna

Herenegun hil zen, 61 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Oroituko zaitugu basoan, errekan, itsas bazterrean... Zureganako biderik ederrenean



ZARAUZ
2009ko uztailearen
14a

Zure emazte, seme-alabak eta gainerakoak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Garikoitz Altuna amezketarrak San Fermin Torneoa irabazi zuen larunbatean, Julen San Miguel lagun zuela. JOSEBA ZABALZA

Garikoitz Altunak San Fermin Torneoa irabazi du Julen San Miguelekin batera

Amezketaketa » Finala iragan larunbatean jokatu zuten Euskal Jai Berrin eta amezketarrak 23 tanto egin zituen amezketarrak.

ERREDAKZIOA

Garikoitz Altuna erremontistak, Julen San Miguelekin bikotea osatuz, San Fermin 2009 Torneoa irabazi zuen iragan larunbatean. Amezketarrak final handi bat jo-

katu zuten Iruñeko Euskal Jai Berrin: 23 tanto egin zituen eta huts bat bera ere ez.

Partidak 78 minutu iraun zituen eta amaieran ondorengo emaitza agertzen zen markagailuan: Altuna II-San Miguelek 40; Urriz-Urrutiak 37.

San Miguelen hauspoa

San Fermin 2009 Torneoaren finala oso irekia izan zen. Txapelketa honetan lau pilotariek sasoiak daukela erakutsi zuten eta ondo-

rioz hasieratik tanto oso politik eta gogorrek ikusi ziren.

Hasiera bizi hau San Miguelen hauspoarekin batera amaitu zen. Altuna II.aren atzelariak 12nakoan pott egin zuen eta aurkariek etzuten aukera alperrik galdu. Bikote gorriak sei tantoko errenta lortu zuen orduan, 14-20urreratu zirelarik.

Partidaren erdian zalantza nagusia, gorrien jokoaren gainetik, Julen San Miguel gaztearen bete-kada zen.

Azeri zahar bat bezala

Finala bukatu ondoren galtzailek kexu ziren. Migel Angel Urrutiaren esanetan eurek partida ongi hasi zuten arren, «San Miguelek ez du arautegia bete: sakea gure esku zegoenean berak bi atsedenaldir hartu ditu». Jabier Urrizak ere Altuna II.aren laguna aipatu zuen finalaren balantzea egiterako unean.

Partidaren erdian zer gertatu zen honela azaldu zuen aldageletan Julen San Miguelek: «Ero ba-

ten moduan hasi naiz hasieran, pilota guztiei emanaz: 15. tantorako lehertuta nengon. Urrutia kexatu egin da nire atsedenaldiekin eta arrazoiak dauka, partida gehiegi gelditu dut».

Atsedenaldir horiek ordea, partida gelditzeaz gain, bi ondorio ekarri zituzten: San Miguelen berpiztea eta Urrutiaren nahastea, partidatik irten egin baitzen gorrien atzelaria.

Altuna II: «Nire ustez txapelketa on bat egin dut: garaipenekin eta joko politarekin»

Julen San Miguelen atsedenaldir eztabaida sortu zuten finalaren ostean

Altuna II.aren erakustaldia

Amezketarrak bien bitartean beiran jarraitu zuen: tantoak eginen. 14-20ko emaitzatik 23nako berdinketara pasa ziren urdinak; ondoren 29na; 33-29; 35-33; 39-35 eta 40-37.

Aldageletan amezketarra gustura zegoen lortutako txapelarekin: «Guretzat oso partida gogorra izan da, une zailak pasa ditugulako partidari zehar. Asko sufritu dugu eta 30. tantoan ihes egitea lortu dugu. Nire ustez txapelketa on bat egin dut: garaipenarekin eta joko politarekin. Txapela ondorioz oso garrantzitsua da niretzat».

San Miguelek ere bikotearen joko goraipatu zuen txapela buruan zuelarik: «Ez finala bakarrik, orokorren oso txapelketa ona egin du Garikoitz Altunak: bere mailarik onenean aritu da amezketarra».

'Herria abian!' etzi elkartuko da Tolosaldean «aldaketa sozialaren alde»

Ekonomia » Batzar irekia LAB sindikatuak Tolosan duen egoitzan egingo dute etzi, 19:00etatik aurrera.

ASIERIMAZ

Auzolanean sortutako herri plataforma da *Herria Abian!* Tolosaldean lehen urratsak iragan astearen eman zituen, eskualdeko eragile desberdinen laguntzarekin.

Herri plataforma oraindik osaketa lanetan aurkitzen da eta horretarako bigarren deialdia egin dute bultzatzaileek. Hitzordua hilaren 16rako, etzirako, jarri dute: 19:00etan Tolosan dagoen LAB sindikatuaren egoitzan.

Bertara joateko baldintzarik ez

dago, izan ere, eragileekin batera norbanako herritarrei ere dei egin diete.

'Herria abian!': helburuak

Herri Plataformaren eragileen esanetan, *Herria Abian!* lek honako helburu hauek betetzen laguntzeko tresna izan behar du: «Eredu kapitalista auzitan jarri eta bestelako Euskal Herria baten alde egitea. Guk ez dugu nahi kapitalismoa birfundatzerik, ereduaren aldaketa baizik».

Aldaketa hori gauzatzeko Euskal Herriak behar dituen tresnak aldarrikatu.

Egungo eredu ekonomikoak langileontzat dakartzan kalteak eztabaida sozial eta politikoa lehen planoan kokatzea.

Aldaketa sozial horren funtsez-

Gu: langileok, emakumeok, gazteok, nekazari eta arantzaleok, ezgaitasunak ditugun pertsonok, langabeok, pentsiodunok, migratzaileok, ekologistok, garrariolari autonomoak, ikasleok... Abian jarri gara.

Kokoteraino gaude krisiaren aitzakian gure aurka hartzen ari diren neurrietan.

Kokoteraino gaude pertsonak eta herriak ekonomiaren izenean sakrifikatzen dituen eredu ekonomiko eta sozial honetaz.

Iragartzen ari diren «kapitalismoaren birfundazio» horren aurrean ez gara besoak gurutzaturik gertatuko, aitzitik, kapitalismoarekiko eredu ekonomiko eta sozial

OINARRIZKO AGIRIA

alternatiboa eraikitzea goaz. *Herria Abian* sektore eta eskualde ezberdinetako lagunek sortu dugun plataforma da.

Lan-taldek sortzen hasi dira Iruñerrian, Bilbon, Gasteizen, Donostia inguruan. Eta datozen asteetan Euskal Herri osora heldu nahi dugu, aldaketa sozialaren aldeko sarea osatuz.

Oinarrizko Agiri baten inguruan jarri gara abian eta urratsez urrats eredu kapitalistarekiko Herri Alternatiba osatzen joan nahi dugu.

Bide hau gurekin egin nahi duten pertsona eta kolektiboek honako deialdi hau luzatzen diegu: jarraituz auzolanean eta egin dezagun bidea.

ko elementuak identifikatu, gizarteratu eta horren aldeko indar metaketa bultzatzea. Euskal Herriko herri alternatiba osatuz.

Kisiaren aitzakian patronalak nahiz Gobernuak hartzen ari diren neurriak salatzea. Euren krisia euren ordaindu dezatala! ideia herritarren artean errotzea.

Egungo egoeraren arduradunak argi eta garbi identifikatu eta interpelatzeko: patronala, Gobernuak, banketxeak, espetulatzatzaileak...

Aurreko guztia bideratzeko, herri sektoreen antolaketa eta mobilizazioarako esparruak irekitzea».

Oinarrizko Agiria

Oraindik *Herria Abian!* ez da martxan jarri Tolosaldean. Hala eta guztiz ere, «aldaketa sozialaren aldeko» saiakera hau, Euskal Herri mailan lanean ari da.

Horren adibidea, Oinarrizko Agiria da. Sektore desberdinetako eragileek elkarlanean osatu eta aurkezten duten agiria; *Aldaketa Sozialaren Alde* goiburupuan.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketak

- **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa eta Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa Aramburu Jauregian.
- **Tolosa.** Uztailan Zumarragako Itziar Albusuaren oleoak ikusgai Lanbroa tabernan.

Deialdiak

- **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an grafiti, hilaren 15ean filma proiektatu-kodute eta 17an merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.
- **Tolosa.** Zuentzart eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatu dituzte. Taldeak umeentzat nahiz helduentzat irekiak daude. Izen-ematea denda edo 676140622 telefonoan.
- **Tolosa.** Soldadura, mekanizata (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatu ditu Peñascal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordukoak (500 orduko praktikak). Izen-ematea, fundazioan (Usabal industriagalgunean).
- **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubin hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodi-illo eta saltxitxak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkartearen.
- **Tolosa.** Udako liburutegia Usabal igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Intxurrekoak berriz ere, garbienak

ALEGIA • Aurten ere, Alegiako Intxurreko bigarren mailako lurraldeko futbol jokalariek Kiroltasun Saria jaso dute. Hamar urtetan laugarren aldiz eman diete sari hau. Beraz, falta gutxi eta txartel gutxi ikusi dituen taldea izan dira Alegiako taldeko mutiak. Aurten bigarren mailan egon beharrean, lehen mailan ariko dira, baina aurtengo aurkari berdinak izango dituzte ligan, hau da; izena aldatu diete maila, beste guztia berdin mantenduz. Irudian, Patxi Renobales futbol taldeko delegatua Juan Luis Larrea Gipuzkoako Federazioko lehendakariaren eskuetik garaikurra jasotzen. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Zuhara Garmendia Urdalleta (Ibarra). Gaur urtebete. Zorionak pottoli! Familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak




sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **5 afari bikoitz** ditu

Uztailaren 16 eta 19 bitarte ospatuko den

Villabonako Garagardo azokarako

irekita 18:00etatik 1:00etara



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira arpidedun kodea eskura duzula osteguna 14:00ak arte.

hizkuntza txokoa hitza